



AGINDUA, INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKAKO SAILBURUARENA, HONAKO DEKRETU PROIEKTU HONEN ALDEZ AURREKO ONARPENA ERABAKITZEN DUENA: TOLOÑO-KANTABRIA MENDILERROA KONTSERBAZIO BEREZIKO EREMUA (KBE, ES2110018) IZENDATZEN DUEN ETA HARI DAGOKION KONTSERBAZIO NEURRIAK ETA ARABAKO HEGOALDEKO MENDILERROAK HEGAZTIENTZAKO BABES BEREZIKO EREMUARENAK (BBE, ES0000246) ONARTZEN DITUEN DEKRETUA.

2010eko irailaren 6ko Aginduaren bitartez, eskualde biogeografiko atlantikoko kontserbazio bereziko eremuak (KBE) eta eskualde biogeografiko atlantiko eta mediterraneoetako kontserbazio bereziko eremuak (KBE) izendatzeko Dekretua onartzeko espedientea hastea erabaki zen. Eremu horien artean Kantabria Mendilerroa Batasunaren Garrantzizko Lekua zegoen (BGL, ES2110011).

Bestalde, Lokiz, Kodes, Portilla, Cabrera Mendia eta Kantabria edo Toloño mendilerroa bera Hegaztientzako Babes Bereziko Eremu (BBE) deklaratu ziren Gobernu Kontseiluaren 200ko azaroaren 28ko Erabakiaren bidez, "Arabako hegoaldeko mendilerroak" izenarekin.

Prozedura hasi eta beharrezkoak ziren azterlanak egin ondoren, ikusi da eremu horretan batasunaren intereseko 20 habitat-mota daudela, gutxienez; horietatik bederatzi lehentasunezkoak dira. Eremuan, 3/92/EEE Zuzentarauaren II. eta IV. eranskinetako 47 espezie eta 2009/147/EE Zuzentarauaren I. eranskinetako 33 espezie bizi dira, gutxienez. Espazio gehiena Batasunaren intereseko baso-habitatetara betetzen dute: pagadi azidofiloak, erkameztiak eta artadiak, eta hagin-basoak eta mendi-hegaleko baso mistoak ere bai. Horrelako baldintzak edukita, oso toki egokia da zenbait anfibio eta kiroptero espezierentzat; hain zuen, Habitategi buruzko Zuzentarauaren II. eta IV. eranskinetan jasota dauden batzuentzat.

Eremuan ehun hegazti-espezietik gora aipatu dira, eta horietatik hogeita hamarren bat 2009/147/EE Zuzentarauaren I. eranskinetan sartuta daude. Azpimarratzekoa da harrapari errupikolen komunitatea -sai arrea (*Gyps fulvus*), hontza handia (*Bubo bubo*), belatz handia (*Falco peregrinus*), arrano beltza (*Aquila chrysaetos*) eta sai zuria (*Neophron percnopterus*)-, bai eta basoko hegaztiak eta baso-ertzetakoak ere: okil ertaina (*Dendrocopos medius*) eta okil txikia (*Dendrocopos minor*). Baina ingurua BBE gisa proposatzeko arrazoi nagusia, funtsean, aztore-arrano edo Bonelli arranoaren (*Hieraetus fasciatus*) eta ugatzaren (*Gypaetus barbatus*) presentzia da -biak daude galtzeko arriskuan EAEn, eta harrapariok berreskuratzeko inguruneak duen potentzialitatea.

Toloño-Kantabria mendilerroaren eta, oro har, Arabako hegoaldeko Mendilerroen bereizgarritasun hori dela eta, komenigarria da mendialde horretarako dekretu-proiektu espezifiko bat lantzea, bi babes-eremuok barnebilduz (KBE eta BBE), biok batera kontserbatzeko tresna bakarra izango dena.



Horrekin batera, beharrezkotzat jotzen da KBEaren izena aldatzea: aurrerantzean "Toloño-Kantabria mendilerroa/Sierra Toloño-Cantabria" (ES2110018) izango da.

Dekretuaren helmena eta hura onartzeko prozedura direla eta, esan beharra dago ezen, prozedura hasi ondoren, zenbait lege-aldaketa gertatu direla Natura 2000 Sarean, 1/2010 Legeak eta 2/2013 Legeek eraginda, eta, haien ondorioz, Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina sortu da (NKLTB, apirilaren 15eko 1/2014 Legegintza Dekretuaren bidez onartua), non aldaketok behar bezala aintzat hartu diren.

Aldez aurretik onartzen den dekretu honek, beraz, artikulua biltzen dituen zati labur bat eta hiru eranskin ditu. Lehenengo bi eranskinek NKLTBren 22. artikulua arabera Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoak diren izendapenaren alderdiak jasotzen dituzte, baita tokiaren kartografia ere (mugaketa barne), Batasunaren intereseko habitat-motak eta izendapena justifikatzen duten animalia eta landare espezieak eta haien kontserbazio-egoera, tokia kontserbatzeko helburuak, eta kontserbazio-arauak eta jarraipen-programa. Hirugarren eranskinak Foru Aldundiaren eskumenak jasotzen ditu; alegia, orain aldez aurretik onartzen den dekretu-proiektuak finkatzen dituen helburuak kontuan hartuta KBB/BBEa kudeatzeko Aldundiak landu eta onartuko dituen neurriak.

Bi dokumentuak batera argitaratu beharko dira EHAAn. Hori dela-eta, beharrezkoa da bi administrazioen arteko koordinazio-bideak garatzea, emaitzak helburuaren arabera koherenteak eta efikazak izan daitezen eta, aldi berean, partaidetza publikoa eraginkorra izan dadin.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legea betetz, eta jadanik dekretu-proiektu egituratu bat landu denez, 2010eko irailaren 6ko Aginduko planteamenduen arabera, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Aldez aurretik onartzea Toloño-Kantabria mendilerroa Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE, ES2110018) izendatzen duen eta hari dagozkion kontserbazio neurriak eta Arabako hegoaldeko mendilerroak Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuarenak (BBE, ES0000246) onartzen dituen Dekretu-Proiektua.

Bigarrena.- Dekretu-Proiektua onartzeko prozedurarekin jarraitzea. Horretarako, 2012ko irailaren 6ko Aginduan jasotako izapideak egingo dira, agindu horretan erabaki baitzen Kontserbazio Bereziko Eremuak (KBE) izendatzeko Dekretua onartzeko espedientea, betiere kontuan hartuta NKLTBn jasotzen diren arau-aldaketek eskatzen dituzten egokitzapenak.

Gainera, gogoan hartu behar da ezen, nahiz eta hasierako aginduak aurreikusi dekretu-proiektuetan genero-inpaktuaren ebaluazioa egin beharra dagoela, iragan legegintzaldian izapidetu eta onartutako dekretuon gainean Emakundek emandako irizpenaren arabera dekretu horiek ez dute genero-inpaktuaren ebaluaziorik behar. Beraz, ez dago izapide hori egin beharrik.

Hirugarrena.- Agindua eta espediente osoaren kopia Arabako Foru Aldundira bidaltzea, NKLTBren 22.5 artikuluko bigarren paragrafoan aipatzen diren kudeaketa-
arauak egin ditzan, proiektu honetan ezarritako kontserbazio-helburuen esparruan.

Laugarrena.- Bi administrazioen arteko koordinazioarekin jarraitu beharko da,
dokumentuak modu egokian kudeatzeko eta, ahal bada, dokumentu osoa jendaurrean
batera erakusteko, Eusko Jaurlaritzari eta Arabako foru Aldundiari dagozkien zatiak
bilduz.

Vitoria-Gasteiz,

ANA OREGI BASTARRIKA
Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburua
Sinadura elektronikoa